

16/22

irizpena

Suteen prebentzio eta itzalketako eta
salbamenduko zerbitzuen

Lege-aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2022eko azaroaren 8a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 16/22

I.- AURREKARIAK

2022ko urriaren 7an Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Segurtasun Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen Lege-aurreproiektuari”* buruzko txostena eskatu zuten.

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko jarduera antolatzea eta euskal administrazio publikoetako horrelako zerbitzuak eta langileen estatutu araubidearen berezitasunak arautzea, modu horretan bermatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzua ematen dela legean definitutako terminoetan, eta aurreikustea zerbitzu horiek beraien artean eta bestelako larrialdi zerbitzuekin batera eta koordinatuta jarduteko mekanismoak.

Berehala bidali zitzaizen dokumentuaren kopia Kontseiluko Batzordeko kide guztiei haiek proposamenak eta iritzia emateko eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorri. 2022ko azaroaren 2an Gizarte Garapeneko Batzordea bildu zen eta hartutako erabakietan oinarrituta Irizpen Proiektu hau sortu zen. Ondoren, Kontseiluaren Osoko Bilkurara eraman zen eta azaroaren 8an aho batez onetsi zuten.

II.- EDUKIA

“Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen Lege-aurreproiektua” osatzen dute Zioen azalpenak eta hogeita hamaika artikuluk. Aurrekoak lau kapitulutan, bi xedapen osagarritan, lau xedapen iragankorretan, xedapen indargabetzaile batean eta bi azken xedapenetan banatuta daude.

Zioen azalpenean lehenik eta behin azaltzen da suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak Larrialdien eta babes zibileko euskal sistemaren ezinbesteko edo oinarritzko zerbitzuen artean daudela beste batzuekin batera, eta horrela aitortuta dago Euskadiko segurtasun publikoko sistemaren antolaketako ekainaren 28ko 15/2012 Legean.

Zerbitzu horiek, larrialdietan esku hartzen duten beste zerbitzuek ez bezala (besteak beste EAeko polizia eta osasun zerbitzuak) ez dute izan gaur egunera arte legezko maila duen arau propiorik, baina araubide juridikoko xehetasunak apirilaren 27ko 1/2017 Legegintza Errege Dekretuak onetsitako Larrialdiak kudeatzeko legearen testu bateginean jasota zeuden.

Araubide berri horrek apirilaren 27ko 1/2017 Legegintza Errege Dekretuak onetsitako Larrialdiak kudeatzeko legearen testu bateginaren V. kapituluko aurreikuspenak ordezkatzeko ditu eta bere gaikuntza segurtasun publikoko, babes zibileko eta larrialdietako EAeren eskumenetan eta funtzio publikoaren erregulazioan dago, eta kontuan hartzen dira bai tokiko autonomia, bai eta lurralde historikoen legeak eta Euskadiko toki erakundeen legeak, hurrenez hurren foru aldundiei eta udalderiei egiten dizkieten esleipenak suteak itzaltzeko autonomia erkidegoko araudia egikaritzaren arloan.

«**Xedapen orokorren**» I. kapituluan helburuaren mugapena, aplikazio eremua eta legearen xedeak jorratzen dira. Legearen helburua da Euskadiko Autonomia Erkidegoko suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko jarduera arautzea. Horretarako, legeak euskal administrazio publikoen horrelako zerbitzuak eta langileen estatutu araubidearen berezitasunak arautzen ditu. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten enpresa suhiltzaileen zerbitzuetan aplikatzen da. Araubide horrekin lortu nahi dena da lurraldean zerbitzuaren prestazioa bermatzea eta baterako

jarduketak ahalbidetzen dituzten koordinazio eta lankidetzaren mekanismoak aurreikustea.

II. kapituluaren arautzen dira **euskal administrazio publikoen suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuak**. Horretarako, lehen sekzioan zerbitzuok definitzen dira honela: Larrialdien eta babes zibilaren euskal sistemaren ezinbesteko edo oinarriko zerbitzuetako bat da, eta zerbitzu horri dagozkio suteak prebenitzeko, itzaltzeko eta erreskateko eta salbamenduko eskudantzia batzuk.

Bigarren sekzioan araututa daude erakundeek zerbitzu publiko horiekiko dituzten erantzukizunak. Zerbitzuok sortu eta mantentzeko eskumenak toki araubideko legean aurreikusitako terminoetan ezartzen dira, baina foru aldundiei dagokie zerbitzu prestazioen eremu geografikoak definitzea dauden zerbitzuak kontuan hartuta, eta bermatzea zerbitzu horien prestazio estaldura hedatzen dela lurralde historiko guztian.

Hirugarren sekzioan suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua arautzen dira. Administrazio titularrei dagokie beren zerbitzuen konfigurazio juridikoa eta kudeaketa modua erabakitzea, baina legeak kanpo uzten ditu zeharkako kudeaketa formak eta herritar guztiei zerbitzuaren lurralde hedapena bermatzeko printzipioa ezartzen die, foru aldundiek esleitzen dituzten eremu geografikoekin bat etorritik. Legeak baimentzen du lurralde bakoitzean erabakitzea beharrei hobekien egokitzen zaien formula, eta horretarako ez da albo batera uzten mekanismoak eta lankidetzaren akordioak ezartzea administrazioen edo suhiltzaileen kidegoen artean eremu propiotik kanpo jarduteko, baldin eta hori egitea eraginkorragoa bada.

Zerbitzuetako langileak eskala eta lerro hierarkiko bakarrean daude, baina hainbat kategoriatan banatuta, eta lege honetan aurreikusitako estatutu araubideak eta funtzionarioen araubide bateratuak arautzen dituzte. Gainera, agintaritzaren agentearen izaera izango dute zerbitzua ematen ari direnean, edo horretatik libre egonik edozein motako ezbehar edo berehalako arrisku egoeran esku hartzen dutenean, baldin eta aurretiaz beraien izaera egiaztatzen badute.

III. kapituluaren euskal administrazio publikoen suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko **langile funtzionarioen estatutu araubidearen** zehaztasunak arautzen dira, eta lege horretan araututa ez dagoen guztirako gainerako euskal administrazio publikoetako langileentzat ezarrita dagoen araubidea aplikatzen da.

Zehaztasun horien barne dago kategoriak eta sailkapen taldeak definitzea, laneratzea eta barneko promozioa, laneratze prestakuntza eta praktika aldia, bigarren jardura eta diziplina araubidea.

Zerbitzuetako langile funtzionarioak hierarkia lerro bakarrean daude kategoriatan: suhiltzaileak, kaboak, sarjentua, azpiofiziala, ofiziala eta inspektorea. Generikoki definitzen dira kategoriatan bakoitzari dagozkion eginkizunak, albo batera utzi gabe lanpostuen zerrendan ezartzen den zehaztapena lanpostu bakoitzari dagozkion zereginak edo egiteko orokorrak edo bereziak definitzerakoan. Halaber, arautu egiten dira kategoriatan bakoitzeko txanda libreko edo barne promozioetako laneraterako betekizunen berezitasunak eta horiei lotutako prestakuntza eta praktikaaldiak.

IV. kapituluaren araututa daude **enpresen suteen itzalketako zerbitzuak** eta enpresetako suhiltzaileen kontzeptua definitzen da, eta eskatzen da suhiltzaile horiek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako ziurtagiria behar dutela, akademiak ezarritako prestakuntza gainditu ondoren. Era berean, langile horien jarduketak jasotzen dira lan egiten duten enpresan autobabeserako planak aktibatzen diren kasuetarako eta beren enpresei eragiten dien babes zibileko plana aktibatzen den kasuetarako.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Hauxe da gure gogoeta *“Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen Lege-aurreproiektuari buruz”*, zeinak eraginpeko administrazioen artean egindako lanari esker asmoa duen azpimarratzea suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen gizarte garrantzia eta lege maila duen araudi propioa ematen dien. Gainera, araudi horrek prestazioa lurralde osoan bermatzen du, zerbitzu horiek beraien artean eta beste zerbitzuekin batera eta koordinatuta jardutea ahalbidetzen duten mekanismoak aurreikusten ditu eta legeari atxikitako langileei aplikatzekoa zaien araubidearen berezitasunak kontuan hartzen dituen eredia du, eta **hori egokitzen eta ontzat jotzen dugu**.

Edukiari buruz gogoeta orokor batzuk egin nahi ditugu:

- ✓ Lehenik eta behin, 2. artikuluan (Helburuak) kontraesan bat dago, hauxe: *“aurreikustea zerbitzu horiek elkarren artean duten **baterako jarduketa eta jarduketa koordinatua**”* eta koordinazio eta lankidetzaren hori ahalbidetzen duten mekanismoak gutxi araututa egotea. Hori bereziki nabaria da 9. artikuluan (Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetarako erakunde arteko batzordea) eta 13. artikuluan (Lankidetzaren mekanismoak).

9. artikuluan suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetarako erakunde arteko batzordearen funtzioak arautzen dituzten terminoak (proposatzea, sustatzea eta abar) eta proposamenen eta txostenen izaera loteslea faltatzea (9.3 apartatua) oso gabezia larriak dira eta lege horretan jaso beharko lirakekeen koordinazio eta lankidetzaren mekanismoen antolamenduaren distortsioa dira, eta mekanismo horiek berrikusi egin beharko lirakeke.

Enpresen kasuan, 13.3 artikulua hauxe ezartzen du: *“suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen administrazio titularrek enpresa suhiltzaileak edo autobabes taldeak dituzten enpresekin hitzartu ahal dituzte elkarrekin lan egiteko mekanismoak lege honen 31 eta 5.2.b) artikuluetan xedatutakoaren esparruan”*. Lehenik eta behin, uste dugu 31. artikuluari egiten zaion erreferentzia okerra dela eta egiaz, 35.2 artikuluari buruz ari dela (Enpresa langileen jarduketa). Gainera, xedapen hori sakonago idatzi beharko litzateke, horrela artikulua horietan xedatutakoa garatzeko (ikus ohar espezifikoak).

- ✓ Bitxia da gure ustez artikulua batean ere ez aipatzea dagokien administrazioek duten betebeharra arautzen diren zerbitzuei bitarteko teknikoak eta beharrezko baliabideak emateko, horrela zerbitzuak zuzen eman daitezkeen. Ez da aipatzen ez udalerrien eskumenei buruzko 6. artikuluan, ezta ere erakunde komunaren 8. artikuluan. Horri jarraikiz, 9. artikulua erakundearen arteko batzordearen funtzioei buruzkoa da, eta nahiz eta c) apartatuan bitarteko teknikoak eta beharrezko baliabideen homogeneizazioa jasota egon, ez du ezer esaten horien nahikotasunaren balorazioari buruz, eta gure iritziz batzorde horren zeregina izan beharko litzateke baita ere.

Halaber, kezkatu egiten gaituzte egitura profesional berrira egokitzearen eraginpeko plantilletan ordainsari baldintzen (2. xedapen iragankorra) *“gastu publikoa ez handitzearen”* nahiak izan ditzakeen ondorioak, izan ere, horri ez diogu zentzurik aurkitzen, eta arrazoitu egin beharko litzateke legearen zioen azalpenean.

- ✓ **Kategoriei eta sailkapen taldeei** (23. art) dagokienez, lehenik eta behin, poztu egiten gara desagertu egin direlako *“suhiltzaile boluntarioen”* eta *“suhiltzaile laguntzaileen”* figurak, baina oraindik ere definitu gabe dago zerbitzuek duten zeregina prebentzioari dagokionez, izan ere, horri

buruzko erreferentzia aukera moduan idatzita dago eta ez ezinbesteko funtzio propio gisa.

Halaber, proposatzen dugu sarjentuaren kategoria profesionala sailkapeneko B taldean sartzea, izan ere ez da ulertzen C1 taldean batera egotea suhiltzailearen oinarriko kategoria eta aipatutako sarjentuaren kategoria, zeinak esleituta dituen “*koordinazioko eta agintaritzako zeregin operatiboak*”, 15. artikuluan (Langileak) jasota dagoen moduan. Horrekin lotuta, positiboa izango litzateke nahiz eta orientabide moduan izan, ratio irizpide bat sartzea agintaritza eskalan proportzionaltasuna mantentzeko.

- ✓ Azkenik, agerian utzi nahi dugu jaso dugun aurreproiektuak ez duela erreferentziarik **karrera profesional horizontalaren** garapenari buruz, eta horretarako erreferentziatzat hartu ahalko litzateke indarrean dagoen Euskal Poliziaren Legea.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

13. art. Lankidetzaren mekanismoak

Artikulu horren **3. apartatuak** hauxe ezartzen du: “*suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen administrazio titularrek enpresa suhiltzaileak edo autobabes taldeak dituzten enpresekin hitzartu ahalko dituzte elkarrekin lan egiteko mekanismoak lege honen 31. eta 5.2.b) artikuluetan xedatutakoaren esparruan*”.

Ohar orokorretan azaldutakoa berretsita gomendatzen dugu apartatu hori **berrikustea** modu honetan:

“3. *Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen administrazio titularrek enpresa suhiltzaileak edo autobabes taldeak dituzten enpresekin hitzartu ahalko dituzte elkarrekin lan egiteko mekanismoak lege honen **35.2** eta 5.2.b) artikuluetan xedatutakoa **garatzeko***”.

15. art. Langileak

Artikulu horren **5. apartatuak** hauxe xedatzen du: “*zerbitzuek atxikita izan ahalko dituzte beharrezkotzat jotzen diren langile teknikoak, administraziokoak edo ofizioetakoak, eta aldi baterako langileak kontratatu ahalko dituzte laguntza edo denboraldi zereginetarako*”.

Lehenik eta behin, gure ustez, alde batetik arautu egin beharko litzateke langile teknikoei, administraziokoei eta ofizioetakoei lotutakoa, eta beste alde batetik, aldi baterako kontratazioak egiteko aukera, izan ere, oso errealitate ezberdinak dira eta bereizita tratatu behar dira, 15.5 artikuluan bi apartatu egin behar badira ere.

Bigarrenik, suhiltzaileen lanposturako aldi baterako kontratazioak egiteari dagokionez, gure iritziz bakarrik betekizun eta prestakuntza eta esperientzia estandar oso zorrotzekin gauzatu beharko lirateke, ziurtatzen dutenak plantillan modu egokian integratzen direla eta protokoloetan eta laneko teknikan normalizatuta egonik, eta aurreko guztia zerbitzuaren ohiko kudeaketa oztopatua ez izateko, edozein moduan, eraginkorra izan behar duelako.

24. art. Laneratzea

Lehenik eta behin, **3. apartatuak** hauxe xedatzen du: “*kabo edo azpiofizial kategorietan laneratzeko prozedura barne promozioen bidez egingo da, oposizio edo lehiaketa-oposizio sistemekin*”.

Apartatu hau berrikustea gomendatzen dugu, izan ere, jada jasotakoekin batera sartu beharko litzateke sarjentuaren kategoria.

Bigarrenik, **4. apartatuan** xedatuta dago hauxe: *“gainerako kategorietan laneratzeko prozedurak barne promozioen eta/edo txanda libreen bidez egingo dira oposizio edo lehiaketa-oposizio sistemen bitartez, eta aurreko guztia dagokion administrazioaren autoantolamendurako ahalarekin. Deialdi bakoitzean aukera egongo da barne promoziorako plazen ehuneko bat gordetzeko.”*

Horrekin lotuta, oreka bilatu beharko da beharrezko barne promozioaren eta konkurrentzia librearekiko errespetuaren artean.

29. art. Bigarren jarduera

Artikulu horretan xedatuta dagoenaren arabera, *“autoantolamendurako ahalarekin bat etorritz, zerbitzuen administrazio titularrek bigarren jarduera arautu ahal izango dute”*.

Harritu egin gaitu artikulu horren idazketa laburrak. Gure ustez jaso beharko luke suteen prebentzio eta itzalketa zerbitzuarentzat nahitaezkoa dela alor horretako araubide bat ezartzea, eta halabeharrez gutxieneko edukiak jaso beharko lituzke.

30. artikulutik 33. artikulura. Zehapen araubidea eta arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak

Aurreko gogoetan azaldutakoaren kontrara, kasu honetan diziplina araubidearen edukia oso handia da, eta bertatik azpimarratuko dugu, bestalde, 33. artikuluko a) apartatua, tipikotasun akatsa sor dezakeen zehaztugabetasuna (falta arinak): *“Norbere itxura ez zaintzea”*.

Gainera, 30. artikulutik 33. artikulura arteko artikuluek ez dute zehapen araubiderik edo araubide garapenari buruzko aurreikuspenik.

Zehapen apartatu horretan, premiazkotzat jotzen dugu dagokion garapen araua, *“egoera psiko-fisikoa alda dezaketen kontsumo substantzien inguruabarretan beharrezkoak diren egiaztapen tekniko”* posibleak arautzen dituen (31.c art) segurtasun juridikorik ez dagoenean.

Xedapen osagarria. Prestakuntza

Xedapen horretan nabariko da etengabeko prestakuntzaren erreferentzia falta dela, eta gainera, enpresako suhiltzaileak sartu behar dira baita ere. Era berean, arautzen diren zerbitzuen arteko prestakuntza arloko plangintza bateratuak sartu beharko lirateke.

1. Xedapen iragankorra Barneko erregelamenduak egokitzea

Xedatuta dagoenaren arabera, *“Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuek estatutuak, barneko erregelamenduak, egitura, antolamendua eta funtzionamendua egokituko dituzte lege honen xedapenetara gehienez ere hiru urteko epean, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita.*

Euskal administrazio publikoetako Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuek horrelakorik ez badute, lege hau indarrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita hiru urteko epean sortu beharko dute antolamendu eta funtzionamendu erregelamendua, eta lege honek ezartzen dituen gutxieneko irizpideak eta edukiak izan beharko ditu”.

Edonola ere, kasu bietan erregelamenduak egokitzeko hiru urteko epea luzeegia dela uste dugu.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egokitzen du "Suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen Lege-aurreproiektua" izapidetzea, kontsulta organo honek egin dituen gogoetak aintzat hartuta.

Bilbon, 2022ko azaroaren 8a

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte